



Gartxoten kobazulotik igarotzen den ibilaldia egiten dute urtero Gartxot Egunean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Bardoaren lorratzetan

Kantuz, kontuz eta doinuaz betetako Gartxot Eguna ospatuko dute gaur eta bihar Itzaltzun • Elkorretako mendi ibilaldia egingo dute bihar

Izaro Zinkunegi Barandiaran

1 Gartxot bardoaren kon-
dairako abestiek oihartzu-
na dute oraindik Itzaltzun
(Nafarroa). Horren lekuko izango
da herria gaur-biharretan, Gar-
txot Eguna ospatuko baitute
haren jaioeterrian. Gaur, festa
giroa izango da nagusi, musikak,
bertsoek eta jan-edanak girotuta.
Bihar, oster, Elkorreta mendiko
ibilaldia egingo dute.

«Gartxot Egunak hiru helburu
ditu: bardoaren kondaira zabalt-
zea, eta euskara eta auzolana
bultzatzea», azaldu du Maite
Aranburu Gartxot Ekimena el-
karteko kideak. Elkarrekin antola-
tzen ditu bardoaren omenezko
urtarrileko ekitaldiak. Hain zu-
zen, neguan egiteak ere badu esa-
nahi berezia: «Jendeari erakutsi
nahi diegu zein gogorra den ne-
gua Itzaltzun; kondairaren eta
bertan bizitzearen gogortasun
hori islatzen du neguan egiteak».

Ibarreko herri batean ekingo
diote itzaltzuarrek Gartxot Egu-
nari, Ezkarozen: Josu Martinez
zuzendariak Jainkoak ez dit bar-

katzen (2018) filma aurkeztuko
du, gaur, 12:00etan. Hura izango
da bardoaren herritik kanpo
egingo duten jarduera bakarra.
Ezkarozen nola, Itzaltzun ere
izango da aurkezpenetarako tar-
tea: Asisko Urmenetak *AztiHitza*
liburu ilustratua aurkeztuko du,
Aduña Ibaia elkartearen,
13:45ean.

Herriak zabaldutako bidea

Aurkezpenez gain, jai giroa izan-
go da nagusi Itzaltzun: otorduz,
bertsoz eta musikaz beteta egon-
go da gaur herrian jarritako kar-
pa. Goizaldeko ordu txikiak arte
izango dute bertaratutakoek gi-
roaz gozatzeko aukera. Toki as-
kotako jendearen topagune
bihurtuko da Itzaltzu, Aranburuk
aurreratu duenez: «Oso modu
xumean hasi ginen antolatzen,
baina azken lauzpabost urteetan
ikusitako Itzaltzuko eta ibarreko
jendeaz gain Euskal Herri osoko
jendea etortzen dela».

Bihar, berriz, ibilaldia egingo
dute Elkorreta mendira. Besteak
beste, Gartxoten kobazuloa bis-
tatuko dute bidean. Elkarrekin

ekimenez sortu zuten ibilbidea:
«Elkarrekin bazuen har bat: Elko-
rretarainoko bide hori prestatzea,
edonork egiteko moduan jartzea:
txukundu, markatu... Pare bat
urte pasatu genituen horretan».
Zailtasunak zailtasun, fruitua
eman du ibilbideak: elkarrekin ki-
deak azaldu du Nafarroako Go-
bernua ibilbide politen zere-
rrendan sartu duela, eta bisitari
ugarri izaten dituela.

Porrotx pailazoaren emanal-
diarekin eta bazkari autogestio-
natuarekin amaituko dute bihar
hamailagarren Gartxot Eguna.
Aranburuk antolatzaileen lana
eskertu du: «Azken urteotan oso
jende gutxiaren gain egon dira ar-
dura garrantzitsu asko, eta jendea
parte hartzera deitu genuen. He-
rritarrek erantzun dute, eta he-
mezortzi laguneko taldea osatu
dugu». Haien lanari esker, kon-
daira, euskara eta auzolana haus-
potuko du egunotan Gartxot Eki-
mena elkarrekin.

Gartxot Eguna

Gaur eta bihar, egun osoz,
Itzaltzun (Nafarroa).



Jaialdia Iruñeko Yamaguchi, japoniarragoa

2 Hiri senidetuak dira
Iruñea eta Yamaguchi
(Japonia), eta harremana
are estuagoa da iaz *Yamaguchi
Torii* kultura japoniarrari buruz-
ko jaialdia antolatzen hasi zire-
nez geroztik. «Yamaguchi par-
kean hango unibertsoa eratzeko
apustua egin dugu», azaldu du
Maider Beloki Iruñeko Kultura
zinegotziak. Bigarren edizioa hasi
da, eta, igandera arte, jarduera
anitz izanen da parkean jarritako
karpan, liburutegian, Golem
zineman eta Iruñeko Planetario-
an. Gaur, Japoniako kultura eta
kirolak ezagutzeko aukera izan-
nen da, baita hango telesail eta
filmak ere. Joko tradizionalak eta
pinturak ere egingen dituzte.

'Yamaguchi Torii'

Gaur eta bihar, egun osoz, Iruñeko
Yamaguchi parkearen bueltan.

Astronomia Ilargia gorritu egingo da

3 Ilargi eklipse osoa izango
da etzi goizaldean. Ilargia
Eguzkiaren eta Lurraren
plano berean jarriko da, eta
eklipsatu egingo dute. Hori ikus-
teko ez da tresna optikorik erabili
beharrik, ez baitago ikusmenera-
ko arriskurik. Aranzadi elkarrekin
teleskopioak paratuko ditu Do-
nostiako udaletxearen aurrean,
eklipsea hobeki ikusteko. Ilar-
giak kolore gorri edo laranja har-
tuko du. Ilargia penunbran sar-
tuko da 03:35ean; eklipsearen
gorena 06:09an izango da, eta
18:44an bukatuko da.

Ilargi eklipse osoa

Etzi, 06:00etatik aurrera, Donostia-
ko udaletxearen aurrean.

Jaiak Urteko batzarra, besta giroan

4 Biltzar Nagusia egingo
du EHLG Euskal Herriko
Laborantza Ganberak
gaur, Ainhize-Monjolosen (Nafa-
rroa Beherea). Baina ez da soilik
biltzarra izango. Hamalau urte
bete dituzte, eta, beraz, batzarraz
gainera, urteurren besta ere
antolatu dute. 10:00etan egingo
dute biltzar orokorra, 2018ari
errepasoa egin eta 2019ko lan
ildoak zehazteko. EHLGren
Lagunak elkarteak ere hizpide
izango dute batzarrean. Ondotik,
bazkaria, 13:30ean. Arratsalde-
an, ostalua paratuko dute, eta
kontzertuak egingo dituzte
Tracteur (Okzitaniako Tolosa),
Zoo (Lapurdi) eta Eskean Kristo
(Bizkaia) taldeek. Gero, DJ Xa2
eta DJ K-Pux ariko dira buruz
buru.

EHLGren 14. urteurrena

Gaur, 09:00etan hasita, Ainhize-
Monjolosen (Nafarroa Beherea).



Jaiak Banderarekin bueltaka

5 Gaur abiatuko dira Oio-
nen Bizente eta Anastasio
donearen jaiak. Ekitaldi-
rik bereziena etzi eta astearte-
an egingo dute: Katxiren irauketa.
Jaietako pertsonaia nagusia da
Katxi, eta, herriko bandera
astintzen duten bitartean, itzuli-
ka ibiltzen da lurrian. Etzi, uda-
letxearen aurrean egingo dute.
Baina, aste-
artearen, elizaren atarian egingo
dute lehenik. Katxi segizioari
bidea irekiko dio gero, eta udale-
txearen berriz egingo du irauketa.

Katxiren irauketa

Etzi eta asteartearen, 20:15ean eta
12:30ean, hurrenez hurren, Oionen
(Araba).